

# Bezeroekiko harremanak

Jendea erakartzeko, eta bezeroak bihurtzen saiatzeko, hasteko, gure lehen mailako proposamenaz baliatuko gara, hau da, birziklapena bultzatzea eta ingurumena hobetzea. Konfiantza osoa jarriko dugu honetan, jende oso kontzientziatua dagoela baitakigu.

Bestalde, diseinu espezializatuak egingo ditugu, penintsulako beste leku batean ere aurkitzen ez direnak. Gainera, prezioa ez da izango altua, lekuko ekonomiara molsatuz, hau da, honelako birziklapen-prozesu zaila kontuan izanda, bezeroetaz ez gara aprobeztatuko eta prezio merke batean saltzen saiatuko gara, inguruko denden prezioetan oinarrituz, baina kalitateari eta erabilerari dagokionez, zerbait berriztagarria eskaintzen.

Bukatzeke, zozketa bat sortuko dugu, non hilabetero, 25 gramoko kutxa bat txikle erabiliez beterik dagoena emanaz, aukera daukaten 20€-ko txartela bat dendan gastatzeko.

Bezeroak mantentzeko, Gumsteiz-eko webgunea sortuko dugu, non produktuez salmenta eta informazioaren eskaintzaz gain, ingurumenarekiko sortuko ditugun onurak azalduko ditugun. Horrez gain, beste apartatu bat egongo da gurekin kontaktuan jartzeko eta edozein gauza komunikatzeko edo galdetzeko, hala nola: negozioan parte hartze nahia, produktuen bihurketaren prozesuaren informazio konkretuagoa.

Gainera, Zeinak ekingo duen harreman publikoa, onura suposatuko du dendarako, eta batez ere, proiekturako, bere abilitate jatorraz baliatuko baita.

Autozerbitzua eta horrelakoei uko egingo diegu, hain zuzen ere bezeroekin harreman naturala eta hobea izateko. Beraz, dendan laguntza pertsonala izango dute bezeroak edota ezer erosten duen jendeak (baina pixkanaka eta gure laguntzarekin, ingurumenarekin kontzientziazten hasteko sartzen direnak) ; eta webgunean, Zeinak atendituko du jendea gustu osoz.

Hazteko, jendearen kolaborazioa eta salmentak igo behar ditugu, hauek kontzientziazteaz gain.

Horrez gain, hilabete bakoitzeko azken igandean, txikle prozesatzen den tokiaren ateak irekiko ditugu, prozesu osoa ikusi nahi duenarentzako, dohainik.

Azkenik, 2€ balioko duen eskumuturrekoa salduko dugu, zeinen irabazien erdiak VIH defendatzen duen "Sidalava" deituriko erakundearentzat izango den.

Hau guztia, azken finean, bezeroak lortzeko pasu handia izango da, baina asmoa gaixoak laguntzea izanda.